BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

3516

77/2026 EBAZPENA, uztailaren 31koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, 2026ko lehen seihilekoan Gobernu Kontseiluak emandako zuzeneko laguntzak edo dirulaguntzak argitaratzea xedatzen duena.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 29.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gobernu Kontseiluak zuzenean ematen dituen dirulaguntzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira; beraz, agindu hori betetzeko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Gobernu Kontseiluak 2026ko lehen seihilekoan zuzenean emandako dirulaguntzen zerrenda argitaratzea, ebazpen honen eranskin gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 31.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN UZTAILAREN 31KO 77/2026 EBAZPENARENA

GOBERNU KONTSEILUAK 2026KO LEHEN SEIHILEKOAN ZUZENEAN EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Xedea / entitate eta pertsona onuradunak	Saila	Data	Zenbatekoa (euro)
Erabakia, zeinaren bidez aldatu egiten baita 2023ko apirilaren 4ko Gobernu Kontseiluaren Erabakia, zenbait erakunderi zuzeneko dirulaguntza ematekoa, osasunari aplikatutako bioteknologiako Plan Osagarrirako (Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana – Next Generation EU): murriztu egiten da Fundación Biofísica Bizkaia erakundeari emandako zenbatekoa.	Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna	2026-02-10	-37.573.01
Erabakia, Otxarkoaga BHIP ikastetxeari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, haren izaera berezia eta Euskadiko hezkuntzaren esparruan betetzen duen funtzio soziala kontuan hartuta.	Hezkuntza	2026-02-10	397.000,00
Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2023ko apirilaren 18ko Erabakia aldatzekoa. Erabaki horren bidez, zuzeneko dirulaguntzak ematen zaizkie Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen den Donejakue Bideari atxikitako «Fábrica-museo La Encartada» kultura-intereseko ondasunaren turismo-erabilerako ondare historikoa mantentzeko eta birgaitzeko proiektu jasangarriak gauzatzeaz arduratzen diren erakunde publikoei, Bizkaiko Foru Aldundiari emandako zuzeneko dirulaguntzaren zenbatekoari dagokionez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan, zeina Europar Batasunak – Next Generation EUk – finantzatzen baitu.	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-03-03	+400.000,00
Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Istituto Per L'ambiente e L'educazione Scholé Futuro – Weec Network Ets delakoari, Ingurumen Hezkuntzaren 14. Mundu Biltzarra – World Environmental Education Congress (WEEC 2028) antolatzea finantzatzeko.	Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna	2026-03-17	100.000,00
Erabakia, Asociación de Víctimas 3 de Marzo – Martxoak 3 Elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Vitoria-Gasteizen 1976ko martxoaren 3ko izandako gertakariei buruzko ikerketa, inbentarioa, dokumentazioa eta dibulgazioa finantzatzeko.	Justizia eta Giza Eskubideak	2026-03-24	35.000,00
Erabakia, CPEIPS Resurrección M. de Azkue ikastola HLBHIP, CPEIPS Calasanz HlBHIP eta CPFPB Gureak OLHIP itunpeko ikastetxeei zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2025-2026 ikasturtean zeinu-hizkuntzako interpreteak/komunikazio-bitartekariak kontratatzeko.	Hezkuntza	2026-03-31	99.293,61 CPEIPS Resurrección M. de Azkue Ikastola HLBHIP……..20.000,00 CPEIPS Calasanz HLBHIP ……..….37.361,56 CPFPB Gureak OLHI 41.932,05

Xedea / entitate eta pertsona onuradunak	Saila	Data	Zenbatekoa (euro)
Erabakia, Muzkizko (Bizkaia) Somorrostro LHIPI ikastetxe pribatu-itunduari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2023an Lanbide Heziketako Bikaintasun Zentroen Estatuko Sarearen jarraitutasuna, garapena eta finkapena lortzeko, C20.I02.P04 osagaiaren barruan, «Bikaintasuneko 50 zentroko sarea sortzea, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan-Next Generation EU».	Hezkuntza	2026-03-31	500.000,00
Erabakia, Iberoamerikako Estatuen Erakundeari (OEI) zuzeneko dirulaguntza ematekoa, «Iberoamerikako testuinguruan Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzari buruzko Jardunaldiak» egiteko.	Lehendakaritza	2026-04-14	60.000,00
Erabakia, Batzen Kultur Elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2026an «Gaztemunduri Ateak Ireki» programa pilotua bultzatzeko.	Lehendakaritza	2026-04-21	50.000,00
Erabakia, zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa Baga Biga Produkzioak, S.L. entitateari, 2026an En Tol Sarmientoren (ETS) «Bihotzen Konkista» proiektua garatzeko.	Kultura eta Hizkuntza Politika	2026-04-21	300.000,00
Erabakia, Bizkaidendak Federazioari (Bizkaiko Merkatari, Ostalari eta Zerbitzuetako Enpresen Elkarteen Federazioa) zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2026ko Berriro proiektua garatzeko eta hedatzeko (Merkataritzarako Fidelizazio-tresna).	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-04-21	146.690,00
Erabakia, Garapen Agentzien Euskal Elkarteari (Garapen) dirulaguntza zuzena ematekoa, tokiko ingurunean 2030 agenda sustatzeko hainbat proiektu finantzatzen laguntzeko.	Lehendakaritza	2026-04-29	55.000,00
Erabakia, zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa Arabadendak-Arabako Merkatarien, Ostalarien eta Zerbitzu Enpresen Elkarteari, «Educación en valores para consumir local y red de puntos seguros: tejiendo barrio, educando futuro» proiekturako (2026-2027).	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-04-29	24.100,00
Erabakia, zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa Euskal Herriko Unibertsitateari (EHU), Lehiaren Zuzenbideko aditu titulua finantzatzeko, 2026-2027 ikasturtean.	Ogasuna eta Finantzak	2026-05-05	10.000,00
Erabakia, unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuei zuzeneko dirulaguntzak ematekoa, parte har dezaten lehen hezkuntzako ikasleentzako eskolaz kanpoko errefortzu-neurrian, irakurtzeko eta matematikako gaitasunei dagokienez.	Hezkuntza	2026-05-05	906.327,73
Erabakia, Zineuskadi Elkarteari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, 2026. urtean euskarazko ikus-entzunezkoak sustatzeko.	Kultura eta Hizkuntza Politika	2026-05-12	350.000,00
Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa UN Etxea - Unesco sustatzeko Euskal Herriko elkarteari, Bilbao Blueprint Bootcamp nazioarteko topaketa antolatzeko.	Lehendakaritza	2026-05-19	250.000,00
Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa gizarteratzearen arloko zenbait erakunderi, 2025-2026 Gizarteratzeko II. Plan Operatiboaren esparruan eraginkortasuna eta eragina duten proiektu esperimentalei jarraipena emateko.	Ekonomia, Lana eta Enplegua	2026-05-19	688.596,94
Erabakia, Asoc Koop SF 34 por el Incentivo elkarteari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, BINI – Auzoak Berrikuntza eta Inkubazioa hurbileko merkataritza-inkubazioko proiektua garatzeko (2026-2027).	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-05-19	119.900,00

Xedea / entitate eta pertsona onuradunak	Saila	Data	Zenbatekoa (euro)
Erabakia, Orbea, S. Coop. elkarteari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, Aiaraldeko Txakolinaren Ibilbidea Orbea Gravel ekitaldia egiteko.	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-05-19	55.000,00
Erabakia, Bilbao Ekintza Bilboko Udaleko sozietateari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, merkataritza-sektorean baterako proiektu berritzaileak sustatzeko (2026-2027).	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-05-19	150.000,00
Erabakia, Emaus Gizarte Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Emausen denden sarerako merkataritza-proiektuaren II. fasea garatzeko (2026-2027).	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-05-26	65.907,00
Erabakia, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Instituturako Deusto Fundazioari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, gobernantza kolaboratiboaren proiektuarekin lankidetzan aritzeko, ongizaterako lehiakortasun-faktore gisa 2026.	Lehendakaritza	2026-06-02	70.000,00
Erabakia, zeinaren bidez zuzeneko dirulaguntza bat ematen zaien Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek 2025/2026 ikasturtean berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleak eskolatzeko erabilitako (BHLP) garraio pribatua –taxi bidezkoa edo egokitua– finantzatzeko.	Hezkuntza	2026-06-02	3.829.965,86
Erabakia, zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa «Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU» fundazioari (EHU), Bitartekotzaren Munduko Foroaren XIII. Konferentzia antolatzeko.	Justizia eta Giza Eskubideak	2026-06-02	10.000,00
Erabakia, Karama – Legal Center for the Defense of Human Rights entitateari zuzeneko dirulaguntza ematea baimentzekoa, «Palestinarren giza eskubideak defendatzea: babes-ikuspegi holistikoa» proiektua finantzatzeko.	Lehendakaritza	2026-06-09	150.000,00
Erabakia, Nazio Batuen Koordinazio Humanitarioko Bulegoaren Sudanerako Funts Komun Nazionalari (CBPF-Sudan) zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Sudanerako 2026rako Erantzun Humanitarioko Planarekin bat datozen esku-hartze humanitarioak finantzatzeko.	Lehendakaritza	2026-06-09	100.000,00
Erabakia, Kubaren garapenerako Nazio Batuen programari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Habanako probintziaren garapenerako estrategia modu integralean ezartzen eta monitorizatzen laguntzeko.	Lehendakaritza	2026-06-09	250.000,00
Erabakia, UPV/EHUko Udako Ikastaroen Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, «Adimen artifizialaren eta kontsumitzaileen eragina» udako ikastaroa finantzatzeko.	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-06-09	6.600,00
Erabakia, Orkestra – Lehiakortasunerako Euskal Institutuari (Deusto Fundazioa) zuzeneko dirulaguntza ematekoa, «Talentuaren gobernantza kolaboratiboa 2026» proiektua garatzeko.	Lehendakaritza	2026-06-16	80.000,00
Erabakia, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Club de Ajedrez Sestao-Sestao Xake Taldeari, «41 Open Ezkerraldea Basque Country» nazioarteko xake-ekitaldia egiteko.	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-06-16	42.350,00
Erabakia, «Asociación Juezas y Jueces para la Democracia» elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, bere 40. kongresua egin dezan Donostian.	Justizia eta Giza Eskubideak	2026-06-16	20.000,00

Xedea / entitate eta pertsona onuradunak	Saila	Data	Zenbatekoa (euro)
Erabakia, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeari (ELGE) zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, proiektu hau finantzatzeko: «Sektore pribatuan GJHak katalizatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan (Espainia) eskualde-lehiakortasuna indartzeko».	Lehendakaritza	2026-06-23	150.000,00
Erabakia, Arantzazu Gaur Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, gizarte-berrikuntzaren eta 2030 Agendaren esparruan hainbat proiektu garatzeko.	Lehendakaritza	2026-06-23	120.000,00
Erabakia, Ortzibia, S.L. sozietateari 2025eko ekitaldiko galerak konpentsatzeko zuzeneko dirulaguntza ematekoa eta dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak onartzekoa.	Mugikortasun Jasangarria	2026-06-23	7.596,00
Erabakia, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea ente publikoari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, trenbide-azpiegitura Eibarren integratzeko (Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan), eta dirulaguntza hori emateko oinarri arautzaileak onartzekoa.	Mugikortasun Jasangarria	2026-06-23	2.714.604,88
Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko mahastizaintzan diharduten pertsonei zuzeneko laguntzak ematekoa (minimis erregimenari atxikitako laguntzak), ustiategien ekoizpen-kostuak handitzearen ondoriozko errentagarritasun-murrizketa konpentsatzeko.	Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza	2026-06-23	739.988,58
Erabakia, Urduñako Udalari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, «Urduñako udalerrian duintasunaren kolunbarioa handitzeko proiektua gauzatzea, 2026. urterako» proiektua finantzatzeko.	Justizia eta Giza Eskubideak	2026-06-23	60.000,00
Erabakia, zeinaren bidez ADR Enkarterrialde Landa Garapenerako Elkarteari zuzeneko dirulaguntza bat ematen baitzaio, «Bideberdeate 2026» ekitaldia bultzatzeko turismoa sustatzeko eta Burdin Mendiak bide berdean irisgarritasunaren ezarpen teknologikoa egiteko, eta aintzat hartzeko erakunde horrekin sinatuko den lankidetza-hitzarmena, dirulaguntza hori gauzatzekoa.	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-06-30	94.243,00
Erabakia, zeinaren bidez Asociación de Comerciantes de la Plaza de Abastos de Vitoria (ACAV) elkarteari zuzeneko dirulaguntza bat ematen baitzaio gauzatu dezan hurbileko elikagai-merkataritza dinamizatzeko, talentua erakartzeko eta belaunaldi-erreleboa egiteko programa (2026-2027).	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-06-30	100.000,00
Erabakia, CM Gipuzkoa, S.Lri zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, HUB Gipuzkoa de Moda y San Sebastián Moda Festival 2026 proiektuko jarduerak garatzeko.	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	2026-06-30	90.200,00